# Hurbil, urrunera begira



IKASTOLA
Oiartzo
etorkizunerako bidelagun

# Konprometitua eta esperientziaduna

Oiartzo Ikastolak **goi-mailako ikasketak egiteko oinarri sendoa** eskaintzen du, Ikastola Ereduarekin nahiz gure Ikastolako proiektuarekin **konpromiso irmoa duen esperientzia handiko irakasle-talde egonkorrari esker.** Hala erakusten digute batxilergo-ikasketak bukatzean urtez urte ikasleek lortzen dituzten emaitzek.





# Ikastola Eredukoa

Eduki akademikoez gain, gazteak **auzolanean, elkarlanean, herrigintzan, ekintzailetzan eta komunitatean inplikatzen eta inplikatuko diren pertsonak** izatea nahi dugu; Ikastolok sorreratik gure-gureak ditugun ezaugarrietan.

# Bertakoa eta hurbila

Oiartzo Ikastolan, gure tamaina eta izaeragatik, **guraso zein ikasleentzako banakako arreta** eskaintzen dugu tutoreen bitartez. Ikasle bakoitzaren beharrak asetzea da helburua, ikasle, irakasle eta gurasoen elkarlanari esker. **Ikasleen etorkizuneko bidelagun izan nahi dugu**.



# Euskalduna eta Euskal Herrikoa

Oiartzo Ikastolan euskaraz bizi gara, eta euskal kultura eta historia gure egunerokoaren parte dira. **Euskaraz eta euskaratik, etorkizuneko Euskal Herriak beharko dituen herritarrak prestatzea da gure xedea. Euskaraz kalitatezko batxilergo-ikasketak** eskaintzeko helburuz egiten dugu eta egingo dugu lan.



# Berritzailea eta aukera zabalekoa

Oiartzo Ikastolaren lan-metodologian barneratuta ditugu berritasun pedagogiko eta teknologikoak. **Gaurdanik hasi behar dugu ikasleei etorkizunean sor dakizkiekeen beharrei erantzuten, beren interes eta gaitasunen araberako aukera zabala eskainiz.**

Euskalduna.
Bizia.
Berritzailea.
Kalitatezkoa.

www.oiartzoikastola.eus

# Eska iezaguzu informazio gehiago:

Zamalbide auzoa, 16
20100 Orereta-Errenteria

Tel.: 943 52 38 04 / 943 52 03 97

oiartzo@ikastola.eus
**www.oiartzoikastola.eus**

Oiartzo IKASTOLA
etorkizunerako bidelagun

ikastola

Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza

orereta ikastola
AURRERA!